



irailak 20

EUSKAL JAIA

KARROZEN IBILBIDEA • URRETXU 2026

12:00 – EUSKAL JAIA IBILADIAREN HASIERA.

Irteera Pagoetatik izango da. Aurten, 8 kuadrilla aritu dira lanean. Koadrila hauek egindako karrozek eta ondorengo taldeek osatuko dute EUSKAL JAIKO IBILALDIA.

Azpeitiko “Itsasi” Zanpantzar taldea

Tolosako dultzaineroak eta Urretxuko “Iratzarri” dultzaineroak

Urretxuko eta Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako erraldoiak:

Bergara, Legazpi, Tafalla

Urretxuko “Lizarriturri” Txistulari taldea

01

URREZKO SIÑORAK

BETIRAKO AMAITUKO BALITZ?

Egun eguzkitsua zen, lasai nindoan oinez, paisaiari begira eta inguratzen ninduenaz gozatzen. Eguzki izpi goxoek aurpegian ematen zidaten eta haize leunak ileak kilikatzen zizkidan. Ohituta nengoen paisaia hartara, ezaguna egiten zitzaidan. Animaliatxoak lanean, hostoak dantzan, adarrak mugimenduan... Inguru izugarri hark liluratuta zuen nire burua, inurriak lanean, txoriak gotorlekuak prestatzen, eta arbola magikoan izaki misterioitsuak lanean. Debalde, dohainik, maitasunez eta ilusioz inguratzen ninduen hura bizirik eta magiko mantentzeko. Bertan igarotzen nituen ehunka ordu, zuhaitzean bizkarra jarrita ingurua begiratzen, inguruaz gozatzen. Ematen zuen musikaz, eskaintzen zituen jakiez eta sortzen zen giroaz. Arbola hura fabrika bat bezalakoa zen, bertan lan egiten zuten izaki magikoak miresten nituen. Debalde ematen zuten, jakin bazekitelako, bihotza beteko zien beste mila gauza jasoko zituztela bueltan.

Egun hartan, arbolara heldu nintzenean, lehen begiradan ez nuen izakirik ikusi... Arraro zegoen, itzalita edo geratuta egongo balitz moduan. Norbaitek edo zerbaitek bertako magia itzali izango balu moduan. Arduratu egin nintzen, beldurtu ere bai... Zuhaitza usteltzen ari zenaren sentzazioa izan nuen. Ez zegoen musika doinurik inguruan, paisaia itzalita zegoen, inguruak ez zuen jakirik ematen... Ez zegoen magiarik.

Segundo batzuez begiak itxi nituen, orain arte hainbeste gozatu nuen hura gogoratu nahian. Zabaltzerakoan amets gaiztoa amaituta egongo zenaren esperantzarekin, ireki eta orduan ohartu nintzen, orain arte ikusitako hori guztia ez zela magia, HERRIGINTZA zela.

¿SI SE ACABARA PARA SIEMPRE?

Era un día soleado, caminaba tranquila, contemplando el paisaje y disfrutando de lo que me rodeaba. Los dulces rayos de sol me daban en la cara y la suave brisa me acariciaba los cabellos. Estaba acostumbrada a ese paisaje, me resultaba familiar. Animalitos trabajando, hojas bailando, ramas en movimiento...

Me sentía fascinada por aquel entorno terrible, con hormigas trabajando, pájaros preparando fortalezas, y seres misteriosos trabajando en el árbol mágico. Gratis, con ilusión para mantenerlo vivo.

Pasaba allí cientos de horas mirando alrededor con la espalda apoyada en el árbol, disfrutando de su entorno. De la música que daba, de los alimentos que ofrecía y del ambiente que se creaba. Aquel árbol era como una fábrica, admiraba a los seres mágicos que trabajaban en él. Lo hacían gratis porque sabían que iban a recibir de vuelta mil cosas más que les llenaría el corazón.

Aquel día, cuando llegué al árbol, a primera vista no vi a ningún ser... Estaba raro, como si estuviera apagado o paralizado. Como si alguien o algo hubiera apagado la magia del lugar. Me preocupé, hasta me asusté... Tuve la sensación de que el árbol se podría. No había melodías musicales alrededor, el paisaje estaba apagado, el entorno no daba abasto... No había magia.

Por unos segundos cerré los ojos, tratando de recordar aquello de lo que tanto había disfrutado hasta ahora. Con la esperanza de que la pesadilla estuviera acabada al abrir los ojos, me di cuenta de que todo aquello que había visto hasta ahora no era magia, era HERRIGINTZA.

Urretxuko trikitilariak
AURTZAKA Dantza Taldea (Beasain)

02

LKPT

HAURTZAROA EZ DADILA PRESAKA PASA

Haurtzaroa garai garrantzitsua da, guztiongan arrasto sakona uzten du, haurren garapen emozional eta kognitiboan sakontzea dakar.

Jolas askeak, babesak, gurasoen presentziak eta erritmo propioak errespetatzeak, heldutasunean oreka sortzen laguntzen die, haien autonomia modu naturalagoan bermatuz.

Gaur egun dugun bizitzeko eran, umeak lehenbailehen ekarri nahi ditugu gure helduon bizitzeko modura: ordutegiak, presak, betebeharrak ugari eta adinez ez dagozkien presioak.

Jolasa eta sormenaren garrantzia azpimarratu nahiko genituzke, presarik gabeko eta kalitatezko denbora indartuz.

NO DEJEMOS QUE LA INFANCIA PASE DEMASIADO RÁPIDO

La infancia es una etapa importante en nuestro desarrollo y deja una huella imborrable.

Significa profundizar en el desarrollo emocional y cognitivo de las niñas y los niños.

El juego libre, la protección, la presencia de los padres y el respeto por sus propios ritmos les ayudan a crear un equilibrio en la madurez, garantizando su autonomía de forma más natural.

En nuestro estilo de vida actual, queremos que nuestros niños y niñas se adapten lo antes posible a nuestra forma de vivir: horarios, prisas, obligaciones e incluso presiones que no corresponden a su edad.

Por lo tanto, queremos destacar la importancia del juego y la creatividad durante la infancia, reforzando un tiempo de calidad y sin prisas.

LURRA Dantza Taldea

40+ PARTIDAK DARRAI

Ez da zure momentua.

Urteak pasa dituzu zure lekua bilatzen, zure nortasuna eraikitzen, ikasten, lanean, erlazioak sortzen, familia zaintzen, eskubideak borrokatzen, kontziliazioaren izenean malabareak egiten... Eta bapatean, hor oztopo ikustezein bat: 40 urte baino gehiago dituzu. Bizitzako bidean, zoriak eraman zaituen laukitxoetatik pasa zara. Iritsi zara 40. laukitxora eta, orain zer? Jokoa bukatu da? Nork gorde du dadoa?

‘Ez da zure momentua’, ‘hori ez da zuretzako’, ‘lotsa ematen duzu’, ‘hori gazteen gauza da’, ‘zure adinean...’ entzuten duzu etengabe. Eta behin betiko zartakoa: Señora. Partida bukatu da. Jaso zure fitxa eta etxera.

Baina, nork dio 40 urtetik gora ez dugula dibertsiorako eskubiderik? Noiz arte gara gazte? Eta zergatik baztertu behar ditugu gure nahiak ‘adin bat’ dugulako? Zergatik ‘señora’ zerbait txarra bezala hartu? Ez al da esperientziaren bermea, honaino iritsi izanaren garaikurra, ikasi dugunaren eta bizirik jarraitzen dugunaren seinale?

Izan ere, bizitzako adinik onena bizirik egotea da. Eta gu, oso bizirik gaude.

40 urtetik gaindi, partidak darrai.

40+ LA PARTIDA CONTINÚA

Este no es tu momento.

Has pasado años buscando tu sitio, construyendo tu personalidad, estudiando, trabajando, forjando relaciones, cuidando de la familia, luchando por tus derechos, haciendo malabares en nombre de la conciliación... Y, de repente, una barrera invisible: tienes más de 40. En el camino de la vida, has ido pasando por las casillas a las que te ha llevado el azar. Has llegado a la casilla 40, ¿Y ahora qué? ¿Se ha terminado el juego? ¿Quién ha escondido el dado?

Escuchas continuamente cosas como ‘no es tu momento’, ‘eso no es para tí’, ‘das vergüenza’, ‘eso es para los jóvenes’, ‘a tu edad...’ Y la estocada final: Señora. Se terminó la partida. Recoge tu ficha y para casa.

Pero, ¿Quién dice que no tenemos derecho a la diversión? ¿Hasta qué edad somos jóvenes? ¿Por qué tenemos que apartar nuestros deseos porque tenemos ‘una edad’? ¿Por qué considerar ‘señora’ como algo malo? ¿No es garantía de experiencia, la medalla por haber llegado hasta aquí, señal de que hemos aprendido y de que seguimos vivas?

A fin de cuentas, la mejor edad de la vida es estar vivas. Y nosotras lo estamos, y mucho.

A partir de los 40, la partida continúa.

HELMUGA: DENAK ETXERA! ORTZI-MUGA BERRI BATERAKO URRATSAK

Azken hamarkadetan euskal presoen eskubideen urraketa, Estatuko botereetatik gauzatutako errepresioaren helburu izan da eta izaten jarraitzen du. Guk aldiz, lehenengo egunetik bertatik, erdigunean kokatu dugu zuzenbidearen eta giza eskubideen defentsa, hau da, bukaera ematea arrazoi politikoengatik presoak, iheslariak eta deportatuak izateari.

Beti esan izan dugu: giza eskubideen defentsa ez da elite baten zeregina, gizarte osoaren konpromisoa baizik. Izan ere, giza eskubideak beti izan dira, dira eta izango dira aterki bat gizarte aske eta gizatiarragoa eraikitzea defendatzen dugun guztiontzat.

Gure lanaren ardatz nagusietako bat, hasiera-hasieratik, urruntze- eta sakabanatze-politika salatzea izan zen. Espetxe-politika krudela eta oso mingarria izan da, urte luzeetan euskal presoak ez ezik, haren senideak eta hurbilekoak ere guztiontzat.

Gaur egun, politika hori atzean geratu da, eta haren amaiera ere modu kolektiboan egindako bidearen parte izan da. Urruntze- eta sakabanatze-politikaren bukaerarekin batera, argi eta garbi defendatu dugu espetxe-politika arrunta aplikatzeko beharra: legezkotasuna bete dadila salbuespeneko neurririk gabe, interpretazio murriztailerik eta zigor gehigarririk gabe, giza eskubideek ez baitute abizenik eta desberdintasunik onartzen.

Orain, esan dezakegu egoera aldatu egin dela; urte askoan aldaezina zirudien agertokia eraldatzen lagundu dugu; gizartean gero eta kontzientzia handiagoa dago eta gero eta irmoagoa da etapa hau behin betiko ixteko erabakia: HELMUGA ageri da!

Agertokiaren aldaketa sakon horrek hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbidea egokitzea eskatzen du, mobilizazio-dinamikak errealitate berrira egokituz eta bidegabekeria hura sortu zuten arrazoiak desagertzeko ahaleginean indarrak metatzea eta aktibatzea. Horixe sinbolizatzen du gure karrozak: HELMUGA, amaiera bera baino gehiago, katebegi berri bat izan behar da, euskal gizartea erdigunean kokatuz, Euskal Herriaren aitortza eta nazio eskubideen aldarria indarberritu eta aurrean ditugun erronkei erantzunez, herri hau ur-azaleratze berri batera eramango duen TRANTSIZIOA.

Beraz, aurten ahalegin kolektibo handiena egin behar da 2027ko URTARRILEKO MANIFESTAZIOAK adieraz dezan euskal gizartearen gehiengoak aurrera egin nahi duela. HELMUGA DENAK ETXERA. Preso, iheslari eta deportatuak, etxera! Lemapean gure helburua da manifestazioak euskal presoen eskubideen aldeko mobilizazio sozialaren ibilbide oso baten amaiera irudikatzea, hori posible egin duten herritarren konpromisoa goraipatzea eta ortzi-muga berri horretarako urratsak ematen hastea.

HELMUGA: DENAK ETXERA! ORTZI-MUGA BERRI BATERAKO URRATSAK

En las últimas décadas, la vulneración de los derechos de las personas presas vascas ha sido, y sigue siendo, un objetivo de la represión ejercida desde los poderes del Estado. Nosotros, por el contrario, desde el primer día situamos en el centro la defensa de los derechos humanos, es decir, poner fin a que existan personas presas, refugiadas y deportadas por motivos políticos.

Siempre hemos dicho que la defensa de los derechos humanos no es tarea de una élite, sino un compromiso de toda la sociedad. De hecho, los derechos humanos han sido, son y serán siempre un paraguas para todas las personas que defendemos la construcción de una sociedad más libre y más humana.

Uno de los ejes principales de nuestro trabajo, desde el principio, ha sido denunciar la política de alejamiento y dispersión. Ha sido una política penitenciaria cruel y muy dolorosa que, durante largos años, ha castigado no solo a las personas presas vascas, sino también a sus familiares y allegados.

Hoy esa política ha quedado atrás, y su final también ha formado parte del camino recorrido colectivamente. Junto con el fin de la política de alejamiento y dispersión, hemos defendido con claridad la necesidad de aplicar una política penitenciaria ordinaria: que se cumpla la legalidad sin medidas de excepción, sin interpretaciones restrictivas y sin castigos añadidos, porque los derechos humanos no tienen apellidos ni admiten diferencias.

Ahora podemos decir que la situación ha cambiado; hemos contribuido a transformar un escenario que durante muchos años parecía inamovible; existe una conciencia cada vez mayor en la sociedad y una decisión cada vez más firme de cerrar definitivamente esta etapa: ¡LA HELMUGA ya se vislumbra!

Ese profundo cambio de escenario exige adaptar una trayectoria de más de treinta años, adecuando las dinámicas de movilización a la nueva realidad y concentrando y activando las fuerzas en el esfuerzo por hacer desaparecer las causas que originaron aquella injusticia. Eso es lo que simboliza nuestra carroza: HELMUGA, que, más que el propio final, debe ser un nuevo eslabón que, situando a la sociedad vasca en el centro, refuerce la reivindicación del reconocimiento de Euskal Herria y de sus derechos nacionales, responda a los retos que tenemos por delante, impulsando una TRANSICIÓN que conduzca a este pueblo hacia una nueva etapa.

Por ello, este año debemos realizar el mayor esfuerzo colectivo para que la MANIFESTACIÓN DE ENERO DE 2027 exprese que la mayoría de la sociedad vasca quiere seguir avanzando. HELMUGA DENAK ETXERA. Preso, iheslari eta deportatuak, etxera! Bajo ese lema, nuestro objetivo es que la manifestación represente el final de todo un recorrido de movilización social en favor de los derechos de las personas presas vascas, rinda homenaje al compromiso de la ciudadanía que lo ha hecho posible y comience a dar los pasos hacia ese nuevo horizonte.

SECUNDINO ESNAOLA musika eskola

HARI BATEN ISTORIAO

Mundu hau abiadura bizian doa, etengabe aldatuz eta berrituz, batzuetan iparra nahiz norabidea galduko balu bezala. Hala ere, zarata guztiaren gainetik, badira herri baten sustraiak eta nortasuna lurrari lotuta mantentzen dituzten hari ikusezin bezain sendoak. Badira belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho eta bihotzez bihotz pasatzen diren altxor handiak: gure hizkuntza, gure ohiturak, gure izateko modua, gure begirada propioa. Gure euskal kultura bizia.

Haritz honek argi erakusten digu transmisio hori ez dela iraganeko kontu bat soilik, martxan dagoen errealitate bat baizik. Iraganeko sustrai sakonek eta etorkizunera begira dauden adarrek bat egiten dute gure kulturari, etenik gabeko ziklo batean.

Bihotzez eta pasioz, guztiok osatzen dugu zuhaitz bera. Taupada bakar batek batzen gaitu denboraren joanean, herri baten arima eta izpiritua bizirik mantentzeko asmo irmoarekin. Guk ez dugu haria etengo. Eta zuk?

EKITEKO GARAIA DA: URRETXU, ESNA ZAITEZ!

Begiratu ingurura. Zer ikusten duzue? Sumendi bat dugu parean. Baina gure sumendi honek ez du laba arruntik botatzen; herrian barru-barruan daramagun kezka eta estutasun bakoitza kanporatzen ari da. Kezka hauek egunerokoan itotzen gaituzte. Etxebizitzaren prezio izugarriek gure gazteak herritik kanpora bultzatzen dituzte, eta bitartean, betiko bekoikeria eta konformismoan erortzen gara, “hemen ez dela ezer egiten” esanez besoak gurutzatuta. Herriko denda eta merkataria estu eta larri daude, argiak banan-banan itzaltzen ari direlarik. Kultur ekimenak desagertzen ikusten ditugu, bolondresak gero eta gutxiago gara eta lehen dena ematen genuen lekuan orain kostatzen zaigu mugitzea. Eta larriena dena: gure altxorrik handiena, euskara, kaleetan gero eta gutxiago entzuten da.

Hau al da nahi dugun herria? Ke artean ito behar al gara? **EZ!** Argi eta garbi: **EZI**

2026an gaude eta Urretxuk beti izan du, bere historian zehar, krisiei aurre egiteko eta aurrera egiteko ahalmen ikargarria. Eta oraingoan ere ez da gutxiago izango. Sumendiak dena erre aurretik, esnatu, suspertu eta lanean jarriko gara.

Herria ahalduentzeko unea da, gazteak eta helduak elkartzekoa. Belaunaldien arteko arrakala hori zubiz bete behar dugu eta transmisioa berriro piztu; zaharren jakinduria eta gazteen indarra baitira gure motorra.

Urretxu, kendu logura! Mugitu gaitezen, egin dezagun topo kalean eta babestu dezagun gurea. Sormenez, gogoz eta elkartasunez, herri honek ez baitu mugarik.

Sumendiak dena erre aurretik, berau gelditu behar dugu!

EKITEKO GARAIA DA. URRETXU, ESNA ZAITEZ!**¡ES HORA DE ACTUAR: URRETXU, ¡DESPIERTA!**

Mira a tu alrededor. Nuestro volcán no arroja lava común, sino los problemas que nos ahogan a diario: el precio de la vivienda imposible que obliga a los jóvenes a marcharse, el conformismo, la crisis del comercio local, la pérdida de iniciativas culturales, la falta de voluntariado y el retroceso del euskera.

¿Es este el pueblo que queremos? ¿Nos vamos a ahogar en el humo? ¡NO!

Estamos en 2026 y Urretxu siempre ha tenido la fuerza para salir adelante. Antes de que el volcán lo queme todo, vamos a detenerlo. Es momento de empoderar al pueblo y unir a jóvenes y mayores: la sabiduría de unos y la energía de otros son nuestro motor.

Urretxu, ¡libérate de la pereza! Salgamos a la calle y defendamos lo nuestro con creatividad, ganas y solidaridad.

¡ES HORA DE ACTUAR. URRETXU, DESPIERTA!

BIDEAN BETI

Indiferentzia, edadismoa eta isolamendua muga handiak diren arren, elkarrekin bota ditzakegu.

Elkar banatzeko asko dugulako, bizitza edozein adinetan dastatzeko eta bizitzeko dagoelako, etorkizuna ere gurea baita eta aniztasunez eta inklusioz bete nahi dugulako inoiz ez baita berandu bizitzeko, maitatzeko eta barre egiteko!! Bidean Beti!

BIDEAN BETI

A pesar de que las barreras de la indiferencia, el edadismo y el aislamiento son gruesas, juntos somos capaces de derribarlas.

Porque tenemos mucho que compartir, porque la vida esta para degustarla y vivirla a cualquier edad, porque el futuro también nos pertenece y queremos llenarlo de diversidad y de inclusión, porque nunca es tarde para amar, vivir y reír ¡Bidean Beti!

ZU DANTZAZ Dantza Taldea

"KARROZEN DESFILEA AUZITAN"

Urretxuko Euskal Jaiak eta Karrozen Desfilea 1959 urtean sortu ziren, artean franskismoa gainditu gabe zegoela, mugimendu sozial eta nazionalak gizartea astintzen hasi zirenean, euskal kulturaren berpiztearekin batera. 1966 urteko debekuaren ondoren, gaur arte etenik gabe ospatu da jaia.

Aurten, ordea, kinka larrian egon da desfilea bera, karrozarik egingo zuen kuadrillarik ez zegoelako. Gure atzetik lekukoa hartzeko prest dagoen gazteren bila hasi garenean, ez dugu inor aurkitu. "Gazteok ez dugu konpromisorik erakusten", erantzun errazena izan daiteke baina, begirada zabaltzen badugu, konturatuko gara krisia urretxuar guztioi galdegiten ari zaigula. Zer konpromiso maila daukagu herritarrok (karrazogileek eta espaloitik begiratzen dutenek) komunitateari eragiten dieten gaiekiko? Euskararen aldeko aldarriak bizirik jarraitzen al du gure artean, edota folklore hutsean erori gara? Herrian taldetasuna eta erabakimena bultzatzen duten politikarik-kulturarik ba al dago? Etengabe eraberritu ezean, tradizioak bere indar eraldatzailea galtzen du. Euskal Jaia eta Karrozen desfilea urretxuarroki ispilu lana egiten ari zaizkigu.

Koadrilaren trikitalariak

Ordutegia: **12.00-14.00**

**HERRI BOTOA
VOTO POPULAR**



EMAN ZURE BOTOA HEMEN
DA TU VOTO AQUÍ



Urretxuko udala



www.urretxu.eus

